goien: iz. Zerbaiten goiko aldea edo ertza, zerbaiten alde edo gune garaiena. **Goienetxe**, **Goienkale**, **Goientzabale**, *Plaza goyen, Aguirre goyena, Hermecheo goyena, Goyena gastañadi, Goyerengo gastañadi, Nafarrola Goyenechea, Nafarrola Goyena, Zuluetagoiena, Abadebasogoyena, Gallar-Ygar-goyena, Cecencorta-goyena.*

gorosti: iz. Bot. Zur gogorrezko zuhaitz edo zuhaixka: *Ilex aquifolium*. **Gorostadi**, **Gorostiape**, **Gorostiazpi**, *Gorostiaga.*

gorri: adj. eta iz. II adj. Odolaren kolorea, argi zuriaren espektroko lehen kolorea. **Iturgorri**, **Lurgorri**, **Farolgorria**, **Iragorri**, **Iratzagorri**, **Moñogorri**, **Paulogorri**, *Etzegorri, Iragorrieta.*

gorta: iz Sarobea. Abereak bazkatzen diren zelaia. **Goikogorta**, **Gortaederre**, **Gortaederrebeko**, **Gortaederrerdiko**, **Gortaederregoiko**, **Oiangortako erreka**, **Mungiagorta**, **Oiangorta**, **Olagorta**, **Olagortazpikoa**, **Gortaederreko mintegia**, *Gortaederrazpiko erreka.*

guarda: iz. Zaintzailea, zaindaria. **Aingeruguardea**, **Aingeruguardatzekoa**.

gurbitz: iz. Bot. Txilarraren antzeko zuhaixka. *Arbutus unedo*. **Gurbizti**, **Gurgusalde**.

guren: adj. gorena. **Areskurenaga**.

gutxi: adj. Txiker. Kopuru edo kantitate txiki zehaztugabearen adierazlea. Mitxelenak dio: «Vizc. (desde los primeros textos) gutxi 'poco', com. guti (nav. medieval gutia 'el pequeño', frecuente como sobrenombre), gutti, gutxi. (Land. guti, gutxi, cf. top. Gamarraguchia, Hurivarriguchia, mod. Ullivarriguchi, Alava, año 1257)» Mitxelena (61, FHV). **Talagutxi**, *Arbizaguchia.*

guzur: iz. Gezur. Egia ez dela jakinda edo uste izanda eta besteak egia dela sinets dezaten esandakoa; egia ez dena. **Guzurgaztaña**.

igar(tu): ad. Ihartu (ihar, ihartzen). Hezetasuna kendu edo galdu, ihar bihurtu, bizitasuna galdu edo kendu. **Igartu**, **Gallarigarreta**, *Ygartu-buru, Gallar Ygarbarrena, Gallar-Ygar-goyena.*

ibai: iz. Erreka. Ur korronte naturala, aski handia, itsasora edo beste ibai batera isurtzen duena. **Ibaigane**.

ibar: iz. Ibai batetik hurbil dagoen eremua, lur lau eta emankorrekoa. **Ibarburu**, **Ibarreta**, *Ibarra.*

ibi: iz. Ibai batean, uraren sakontasuna txikia dela eta, oinez igaro daitekeen lekua. *Iviaga*, **Urubi**.

-ika: oinarri latinoei lotzen zaien atzizkia. **Almika**, **Almikaburu**, **Almikatxu**, **Almikanagusi**.

ikatz: iz. Errekin beltz trinkoa, gehien bat karbonoz osatua. **Ikazulo**.

iko: iz. Bot. Pikondoa. Morazeoen familiako zuhaitz edo zuhaixka hostogalkorra (*Ficus carica*). II. Bere fruitua, itxuraz udare baten antzekoa. **Ikueta**, **Ikoaga**.

ilun: adj. Argiz edo argitasunez gabetua; argi edo argitasun gutxi duena. **Basoillun**, *Baso-illumpe*, **Kaleilluna**, **Pozuillune**, **Estratzaillune**.

imini: ad. Ipini. Norbait edo zerbait toki edo egoera berri batean gerta dadin eragin. **Andiriminieta**, **Aretximinieta**, **Zugatziminieta**, **Ibiñaga**, **Ibiñagalde**.

infernu: iz. Erl. Zenbait erlijioren arabera, kondenatuek heriotzaren ondoko behin-betiko zigorra hartzen duten oinaze-lekua. II Izugarri sufritzen den tokia edo egoera. **Infernuerreka**.

ingeles: iz. eta izlag. Ingalaterrakoa. II Ingalaterrako biztanlea. **Ingelesolo**.

intxaur: iz. Bot. Intxaurrondoa. Juglandazeoen familiako zuhaitza: *Juglans regia*. II. Bere fruitua. **Intxaurreta**, **Intxaurpe**, **Intxausti**, **Intxausti kalea**, **Intxaustipe**, **Intxaursolo**, *Intxortzuta*.

inurri: iz. Zool. Himenopteroen ordenako formizidoen familiako intsektu txikia. **Iñurri**, **Iñurrieta**.

-io: Zenbait leku-izen zaharrek ageri duten bukaera. Mitxelenak esaten duenez, «Es particularmente frecuente la terminación -io en muchos apellidos de difícil etimológia: Areitio, Baquio, Elorrio (quizá de el(h)orri), Gomendio (Garate propone el sentido 'encomienda', cf. gomendio 'recomendación, Euzko Gogoa III, 11), Lujambio, Mena(u)rio (Meaurio), Mutio(zabal), Orrio, Zam(b)udio.» Gehiago esaten du, «Efectivamente, -io, suf. o mera terminación, es de muy elevada frecuencia: así en nombres de población, sobre todo occidentales, como Amurrio, Baquio, Barambio, Derio, Erandio,etc.; acaso también Bermeo, escrito Bermeio, Vermeio desde el s. XI. Si la pérdida de -n- entre vocales es regular en las formas vascas de los nombres de lugar, esto raramente se refleja, y menos en fecha antigua, en las formas oficiales, escritas.» (Mitxelena: *Apellidos Vascos*, 1986, 133-134). Bermeio, Vermeio, **Dibio**, **Kurtzio**, **Ermetxio**, **Bakiobidea**.

ira: iz. Iratzea, garoa. Lurpeko zuztarra eta aski gora igotzen diren hosto elkartu handia dituen landare iraunkorra (*Pteridium aquilinum*). **Antonion iralekua**, **Irabiaga**, **Irabiene**, **Irabientxikerre**, **Irabienondo**, **Iragorri**, **Iratzagorri**, **Iraebagia Irebagieta**, *Irazabaleta*.

(h)iru: zenbatz. zehaz. Bi eta bat, 3. **Iruaretzeta**, **Iruarrieta**, **Iruerrekata**, **Irugaztañeta**, **Irukurtzieta**, **Irureta**, **Irusurrune**, **Iruiturriak**, *Yruchueta*.

isla: iz. Irla, uhartea. Ozeano, itsaso, aintzira... bateko urek inguratzen duten lur eremu iraunkorra. *Islie*.

istu: adj. Estua, meharra. **Kaleistua**.

itsaso, itsas-: iz. Lurraren azalaren zatirik handiena estaltzen duen ur gazizko hedadura zabala. **Itsasalde Itsasgane**, *Ichaso-alde*.

iturri, itur-, itu-: iz. Lurretik ateratzen den euri ura, lur azalera isurtzen dena. II Iturburua, etorkia. **Iturrieta**, **Iturgorri**, **Iturripe**, **Iturrigane**, **Iturrondo**, **Iturriondo**, **Iturrisolo**, **Santakruziturri**, *Ametziturri*, **Argiñiturri**, **Atxetako iturria**, **Atxiturriaga**, **Gorosoko iturria**, **Ibiñagako iturria**, **Iturria**, **Iturribiak**, **Iturralde**, **Iturrandiaga**, **Iturrazpi**, **Iturbide**, **Iturribide**, **Itubizkar**, **Iturburu**, **Iturriburu**, **Iturrondoburu**, **Iturrizarre**, **Iturrizarregane**, **Iturriko beresi**, **Iturriko landa**, **Iturriondo**, **Iturriko solo**, **Iturritxu**, **Kakiturri**, **Iruiturriak**, **Jentilliturri**, **Kantarapeko iturria**, **Metaleko iturria**, **Naparriturri**, **Sollubeko iturria**, **Txornako iturria**, **Iturriko erreka**, *Talleko itxurriʒe*, *Chaleco-iturri*, *Iturri-ondocua*, *Yturri-goicoa*, *Arbitxuko itxurriʒe*.

-iz: Leku-izen zaharretan ageri den bukaera. **Nardiz**, **Nardiztxikerre**, **Tribiz**, **Galdiz**, *Buculis*.

jale: adj. eta iz. Jaten duena; jateari zaletasuna diona. Zentzu figuratiboan, lema hausten duen itsasoko edo kostaldeko haitzari esaten zaio. **Lemajale**.

jardin: iz. Lore apaingarriak hazten diren lur zatia, lore baratza. **Jardiña**, **Jardinondo**, **Jardiñeta**, *Jardiñecua*.

jentil: iz. Euskal Herria kristautu aurreko euskalduna, herri oroitzapenean izaki neurriz gaineko bihurtu dena. **Jentilliturri**, **Jentillatxeta**, **Jentillatxetako erreka**.

juramentu: iz. Zina. **Juramentu**, **Juramentupe**.

kabo: iz. Lurmuturra. Itsasoan barneratzen lur punta. *Kabu*.

kale: iz. Hiri edo herrietan, etxez inguraturiko bidea. **Batxikale**, *Sagarcalle*, **Almikakalea**, **Andra Maria kalea**, **Aroztegi kalea**, **Beiportale kalea**, **Denderiakalea**, **Erremedio kalea**, **Ertzilla kalea**, **Eskolakalea**, **Goienkale**, **Intxausti kalea**, **Iskiñarruaga kalea**, **Kalene**, **Kaleilluna**, **Kaleistua**, **Karnazeriakalea**, **Kofradikalea**, **Korreokalea**, **Kukunkalea**, **Peskaderiakalea**, **Pisukalea**, **San Frantzisko kalea**, **San Martin kalea**, **San Andres kalea**, **Sanjuankalea**, **Santa Barbara kalea**, **Santa Eufemia kalea**, **Talakalea**, **Zarragoiti kalea**, **Zesteriakalea**, *Areiltza kalea*, **Boltegieta kalea**, *Okarantza kalea*, *Talakoetxea kalea*, **Trake kalea**, *Sastarkalie*, *Barranderokalie*, *Eskolakalie*, *Atzurkalie*, *Barrencalle*, *Artecalle*, *Morgacalle*, *Bedarkalie*, *Pelotakalie*, *Katu kale*, *Astokalie*, *Ardaukalie*.

kaltzada: iz. Galtzada. Harriz, batez ere harri landuz, eginiko bidea, bide luzatua. **Kaltzada**, **Kaltzadasolo**, **Kaltzadape**, **Kaltzadapeko solo**.

kamiño: iz. Gurdi eta autoentzako bidea. Ik. erret. errepide. **Kamiñondo**, *Kamiñerune*.

Kandelario: Ama birjinaren garbitasuna ospatzen duen jai kristaua. Otsailaren 2an ospatzen da eta, tradizioaren arabera, neguaren luzera edo laburra neurtzen da egun horretako eguraldiaren arabera: kandelario bero, negua dator gero; Kandelario hotz, negua joan da motz. **Kandelarioko ermita**.

kanpo: iz. Landa. **Kanpopea**, **Txominkanpo**

kanposantu: iz. hilerria. Hilak ehorzten diren lekua. **Ormabarrietako kanposantuzarra**.

kantal: iz. Ertza, bazterra. *Ajusttecanttala, Austekantale*.

kantara: iz. harrobi. **Kantara**, **Kantarea**, **Kantarako aritzeta**, **Kantarabaso**, **Kantaraburu**, **Kantarape**, **Galdizko kantarak**, **Kantarapeko iturria**, **Kantaratxu**, **Kantaratxuko erreka**, **Kantarazarre**, **Tribizko kantara**, *Cantarachu*, *Cantaraondo*, *Cantara-solo*, *Cantera-zar*, *Cantara-echevarri*, *Cantarape-barri*.

karabi: iz. Karobia. Kare bizia egiteko labea. Mitxelenak dio: «Guip. Vizc. Karobi ‘horno de cal’, junto a karabi, vizc. Orozco karaubi<*kara-obi». Mitxelena (61. 118) **Karabia**, **Karabialde**, **Karabigane**, **Karabiko landako zubia**, **Karabiondo**, **Karabiko solo**, **Karabitxu**, **Lokedoko karabia**, **Mintegitxuko karabia**, **Munepeko karabia**, **Torreko karabia**, *Carabi-goicosoloa*.

kare: iz. Geol. Kaltzio karbonatoz osatutako harri sedimentarioa da, izadian ugarien dena, gai zuria. **Karatxe**, **Karabia**.

kargadero: iz. Itsasontziak karga hartzeko edo uzteko leku egokia. **Kargadero**.

kartzela: iz. presondegia, espetxea. *Carzelacoa, Carceloña*.

kasa: iz. Bizi izateko eraikina, etxebizitza. **Kasabarriatzeko**, **Kasabarriaurreko**.

kasiño: iz. Jendea biltzeko edo atsegin hartzeko tokia edo etxea; bereziki diru jokoak baimendurik daudena. **Kasiñoa**.

katalan: adj. Kataluniarra. *Katalane, Bachi Catalan*.

katea: iz. Ordain-lekua. Bideak erabiltzeagatik, askotan beren mantenurako, bide-saria ordaintzen zen lekua edo etxea. **Kateaburu**, **Kateape**, **Kateapeko erreka**, **Kateazarre**, *Katiko bixkerre*, *Catiabecoa*, *Catiape barrena*.

katu: iz. Zool. Gizakiaren lagunartean bizi den ugaztun txiki haragijalea eta atzapar-zorrotza, ile leuna eta begi luzaran distiratsuak dituena (*Felis silvestris* subsp *domesticus*). **Katuen erreka**, *Katukale*, *Katunaretza*, *Katunatza*.

keriza: iz. Bot. Gereziondoa. Errosazeoen familiako zuhaitza: *Prunus avium*. II. Bere fruitua. **Kerizazpi**, **Kerizeta**, **Kerezondo**, *Queres-ondo-aurreta*.

kikimera / kikunbera: iz. Uretan murgiltzeko egiten den buruz beherako itzulipurdia. **Kikunbera**.

-ko / -go: Deklinabide atzizk. Leku genitibo marka. **Agirrebarrenengo**, **Auzoko**, **Obiakoene**, **Beasko**, **Belauko**, **Kasabarriatzeko**, **Kasabarriaurreko**, **Landagoiko**, **Matxitxako**, **Nafarrolagoiko**, **Nafarrolaerdiko**, **Nafarrolabeko**, **Mungiarrenebeko**, **Mungiarrenegoiko**, **Txaoletabeko**, **Txaoletaerdiko**, **Txaoletagoiko**, **Uriartebeko**, **Uriartegoiko**, **Zubikoa**, **Ganeko landa**, **Goikogane**, **Masugoiko**, **Paradako landa**, **Goiko plaza**, **Bekoetxe**, **Erdikoetxe**, **Laumariko**, **Goikogorta**, **Motzenekoa**, **Bengoetxe**, *Carzelacoa, portal de Sagarbarrico, Jardiñecua, Aguirre becoa, Goyerengo gastañadi*.

kofradia: iz. Anaidia. Maila beretsuko lagunen artean edo lanbide berekoen artean sorturiko elkartea, helburu amankomun batzutan oinarrituta. **Kofradiakalea**.

koixo: adj. Herrena, hanka-motza. *Martinkoixone*.

komentu: iz. Elizgizonak edo lekaideak edo lekaimeak elkarrekin bizi diren etxea. **San Frantzisko** komentua.

korreo: iz. Posta. Korrespondentziaren garraioa; garraio horren ardura duen herri zerbitzua eta egoitza. **Korreokalea**.

korta: iz. Sarobea, Larretarako erabiltzen ziren lurrak. Ik. gorta. II Ukuilua. **Zezenkorta**, II. *Kortatzea*, **Matxikorta**.

kurtze: iz. Gurutze. Bi marra gurutzatuz eginik eratzen den zeinua. II Lurrean tinkatzen den habe batez eta zeharkako ohol batez osatutako urkabea, bertan lotu edo iltzatutako gaizkileak hilarazteko erabiltzen zena. *Bidekurtziʒue*, *Vidacurze*, **Burdinkurtzeaga**, **Irukurtzieta**, **Kurtzebaso**, **Kurtzioburu**, **Kurtzio**, **Kurtzieta**, **Kurtzeko landa**, **Kurtzeanondo**, **Kurtzezarre**, **Santakruzko landa**, **Santakruzerreka**, **Santa Kruz**, *Vidacuruje*, *Kurtzie*, *Kurtzemendi*.

labadero: iz. Garbitegi. *Labaderoa*.

laba: iz. Labe. Barnean sua eginez ogia erretzeko, karea, adreiluak egosteko… erabiltzen dena; beroaren bidez gauzak edo gaiak berotu, egosi, erre, kiskali, urtu edo eraldatzeko erabiltzen den zernahi eraikuntza edo barruti. **Labazarra**.

laban: adj. Labain. Erraz labaintzen dena; irristakorra, bertan labaintzea erraz gertatzen dena. II Labainarri: iz. labainarazten duen harria. **Arrilabane**, **Errekalabane**.

lamera: iz. Alameda: **Lamera**, **Lameratxiki**.

lamia / lamina: iz. Euskal folkloreko izakia, emakume itxura duena eta oinen ordez erpeak edo ahate oinak dituena. Ibai ertzetan edo kobazuloetan bere adats luze horaila urrezko orrazi batekin orrazten aritzen da. **Lamiaraneko erreka**, **Lamiñerreka**, **Lamiaranpunta**.

landa: iz. Lantzeko ona den lur eremua. Alor, Ik. arlo. II Bi tontorren arteko sakonune arina, igarobide izan ohi dena. **Areagako landa**, *Achicalanda*, **Altxurragako landa**, *Ventaco landa*, *Birjinlandape*, **Landa**, **Egiko landa**, **Eperlanda**, **Etxebarrilanda**, **Ganeko landa**, **Gorosoko landa**, **Iturriko landa**, **Karabiko landako zubia**, **Kurtzeko landa**, **Landabarri**, **Landabaso**, **Landabasoalde**, **Landaberde**, **Landagoiko**, **Landaluze**, **Landagoikoko zubia**, **Landane**, **Landanebeko**, **Landanegoiko**, **Landaondo**, **Landape**, **Landapepunta**, **Landatxu**, **Landatxupea**, **Mañuko landa**, **Paradako landa**, **Santakruzko landa**, **Zietako landa**, **Santakruzko landa**, **Landabasoko erreka**, **Landaneko erreka**, **Zumarrietako landa**, *Zubilanda*, *Landaerrota*, *Landa solobarrena*, *Goiko landie*.

lapur: iz. ostu egiten duen pertsona, ohoina. *Lapurreche*.

larrain: iz. Uzta eultzitzen den leku laua, lurra irmo eta askotan luzatua duena. **Larrañe**.

larre: iz. Landa; bereziki, abereak bazkatzen diren toki belartsua. **Araneko larre**, **Otsolarre**, **Pepetolarre**, *Pepitalarre*, **Aurreko larre**, **Astalarre**, **Astalarrepe**, **Ezkiagalarre**, **Goiko larre**, **Larre**, **Larregane**, **Larruzeta**, **Larrezarre**, **Uzelarreta**, **Ezkiagalarreko erreka**, *Larrazabal*, *Otalarra*.

larrosa: iz. Arrosa; *Rosa sp*. Ik. errosa. **Larrosadi**.

lau: zenbatz. zehaz. Hiru eta bat, 4. **Lauaritzeta**, **Laubidieta**, **Laumariko**, **Lauziriko arezti**.

lauziriko: iz. Antzinako dirua: bi marabediko balioa zuena. **Lauziriko arezti**.

lazareto: iz. Gaixotasun kutsakorra dutenentzat koarentena egiteko eraikitako ospitalea. **Lazaretoa**, **Lazaretoko punta**.

leizar: iz. Bot. Oleazeoen familiako zuhaitza *Fraxinus excelsior*. Erreka ondoetan, eta orokorrean leku hezeetan hazten da. **Leixarreta**, **Leixartxueta**.

leku: iz. Tokia, espazioaren zati jakina. **Sartzailleku**, **Aizeleku**, **Antonion iralekua**, *Bolaleku*, **Frailleleku**, *Bañoleku*, *Truboilekue*.

lema: iz. Ontzi baten norabidea edo higidurak gobernatzeko ohol laua, eskuarki atzealdean, popan ezartzen dena. **Lemajale**.

leun: adj. Azalez, gainaldeez mintzatuz, kozkorrik edo zimurrik ez duena. **Arloleuneta**.

leza: iz. Leize. Haitzulo guztiz sakona, sakontasun guztiz handi eta harriskutsua. **Lezak**.

lor: iz. Irristatuz garraiatzen den enborra. II Zama. **Lorbide**, *Galbalorra*, **Gibelortzaga**.

lubarri: iz. Luberri. Kendu diren belarrak eta sustraiak erreaz eta goldatuz, ereiteko prestatu den lurra. **Lubarri**, **Luberri**, **Lubarritxu**.

luki: iz. Azeria: *Vulpes vulpes*. **Lukizuloa**.

lur: iz. Lurraren zati gotorra eratzen duen osagaia, eta bereziki osagai horren zati biguna, landareak hazteko balio duena. II Osagai horren hedadura, lantzeko erabiltzen dena bereziki. **Lubarri**, **Luberri**, **Lubarritxu**, **Lurgorri**.

luze: adj. Buru batetik bestera hedadura handia duen edo ohizkoa baino handiagoa duena; luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena. **Sololuzea**, **Arbolatzaluze**, **Arloluze**, **Ataluze**, **Mendiluz**, **Landaluze**, **Larruzeta**.

madari: iz. Bot. Madariondoa. Errosazeoen familiako zuhaitza: *Pyrus communis*. II. Bere fruitua. **Madari makatza**: basoan besoan berez hazten den madariondoa. **Madari**, **Madariaga**, **Madariagako erreka**, *Madarico-erreca*.

maila: iz. Zurubi batean, oina jartzeko zeharkako ohol edo euskarri bakoitza; garaiera desberdineko bi gainalde lauen arteko bitartea, urrats bat emanez igarotzean oina jartzen den leku laua. **Eskillaramalleta**, **Mallak**, **Malleta**.

mahats: iz. Bot. (Multzokaria). Mahatsondoa. Bitazeoen familiako landare bizikor eta igokaria: *Vitis vinifera*. II Bere fruitua. II Mahats landarea. **Mastia**, **Ondarreko masti**, **Kafrankako mastiak**, **Masolo**, **Mastiarte**, **Mastiaurre**, **Mastibasoa**, **Mastibitarte**, **Mastiebagia**, **Martinmasti**, **Mastiondo**, **Mastizarra**, **Mastizarre**, *Tirante mastipiek*, *Mastijjek*, *Mastipiek*.

mailuki: iz. Bot. Marrubi. Arrosaren familiako landarea: *Fragaria vesca*. Zurtoin herrestaria, hiru zatitan bereizitako hosto horzdunak, lore zuriak eta ale txiki askoren elkartzeaz eraturiko fruitu gorri mamitsuak ditu. **Mallukitza**, **Mallukisolo**.

maisu: iz. Zenbait egitekotan gidari edo arduradun gisa ari den pertsona. **Maisuan etxea**.

makatz: iz. Fruitu zuhaitzez mintzatuz, berez hazten dena, landugabea, txertatu ez dena; besterik adierazten ez bada horrelako madariondoa: *Pyrus cordata*. II Horrelako zuhaitzen fruitua, eta besterik adierazten ez bada, horrelako madaria. **Makatzaga**, **Makatzagaburu**, **Makatze**, **Makatzeta**, **Makatzagako erreka**.

marabedi: iz. Espainiako diru zaharra; batez ere erreal koartoaren hogeita hamalaurena balio zuen kobrezko dirua. **Laumariko**.

mendi: iz. Lur azaleko jasoune handia, inguruneari buruz aski nabaria. Ik Mune (muino). **Mendiluz**, **Mendiola**, **Mendiondo**, **Urkamendi**, **Urkamendiondo**, *Gibelemendi, Mendondogane, Zugatza-mendi, Kurtzemendi, Truboimendi.*

meta: iz. Lurrean gauzak elkarren gainean jarriaz egiten den pila. II Besterik adierazten ez denean, iratzez edo belarrez egiten dena, haga baten ingurura biltzen dena. **Garimeta**.

metal: iz. Kim. Gai bakuna, distira berezia duena, elektrizitatearen eta beroaren eroalea, oxidagarria. **Metala**, **Metaleko iturria**.

mika: iz. Zool. Paseriformeen ordenako eta belearen familiako txori handi isats-luzea (*Pica pica*). **Mikasolo**.

mikelete: iz. Lehen karlistadaren ondoren (1844), Diputazioak eta Batzar Nagusiek sortu zuten arma erakundeko kidea. Foru polizia baten antzekoa zen mikeletea, eta gaizkileen errepresioa eta Diputazioaren zergak kobratzea izan zituen, besteak beste, zeregin nagusi. *Miquelete, Miquelete-buru*.

miliziano: iz. Gudaroste baten banakako ordezko edo osagarri gisa ari dena, lanbidez gudari ez dena. *Milicianuena.*

mintegi: iz. Beste leku batean birlandatzeko diren landareak ereiteko eta hazteko prestatzen den lur saila. Hazitegi. **Mintegi**, **Mintegibarrena**, **Mintegiburu**, **Mintegitxu**, **Mintegipe**, **Gortaederreko mintegia**, **Mañuko mintegia**, **Mintegitxuko karabia**, *Mintegui Zabala.*

moila: iz. (Heg.) Kaia, nasa. Portuetan, pertsonen eta zamen untziratzea eta lehorreratzea errazteko prestatzen den eraikuntza. II Portua, berreziki eraikia denean, hots, berezkoa ez denean. **Dikeko moilla**, **Errosapeko moilla**, **Matxikortako moilla**.

mojoi: iz. Munarri. **Mojoja**, *Mojoi nagusi.*

montor: iz. Muntoi, multzo. **Axmontorre**, **Garimontorpe**, **Txominmontorre**, *Ach-montor-aspia.*

moño: iz. Buruaren atzealdean emakumeek eratzen duten ile bilduma. **Moñogorri**.

motz: adj. Luzeraren nahiz beste tasunen baten urritasuna agertzen duena. II Adimen urrikoa. II Itsusia, zatarra. **Bidartemotzene**, **Etxebarrimotzene**, *Motz*, **Motze**, **Motzene**, *Mocenecue.*

munarri: iz. Lurralde, jabego… baten muga, bide bateko bitarteak etab. adierazteko ipintzen den harri edo seinalea. **Munarrinagusi**, *Mujarrigane.*

Mundaka: Bizkaiko kostaldeko udalerria, Gernikako itsasadarraren ezkerraldean (Gernika-Bermeo). Mendebaldetik egiten du muga Bermeorekin. **Mundakabidea**, **Mundakatxu**, *Mundakane.*

mune: iz. Muino, Lur azaleko jaso une txikia. Mendixka. *Arimune*, **Munepe**, **Munepeko karabia**, **Munarrinagusi**, **Munepeko erreka**.

Mungia: Bizkaiko erdi-iparraldeko udalerria (Plentzia-Mungia). Ekialdetik egiten du muga Bermeorekin. **Mungiagorta**, **Mungiarrenebeko**, **Mungiarrenegoiko**.

muru: iz. Murru. Horma sendoa, harresia. **Morondo**.

-(re)n: Deklinabide atzizk. Genitibo marka. **Katuen erreka**, **Birjiñean beresi**, **Kurtzeanondo**, **Atsoarene**, **Maisuan etxea**, **Santunatxe**, **Frantzunatxeta**, **Luisen arezti**, **Antonion iralekua**, **Iradiren etxea**, **Auntzen txabola.**

-(e)na: Deklinabide atzizkia den genitibo markan oinarritutako bukaera, amaieran artikulua lotuta edo *–a* bukaera duena. **Bakereseana**, **Arrebena**, **Martzana**, **Filomena**, **Karlotana**, **Probostuena**, *Miquelena-echebarri, Yoaquinchuena, Julianena, Francesena, Balluena, Jesusena, Milicianuena, Atelena, Consena, Calena-atze, Martena, Errafallachuena, Almiquena, Mundaquena, Papusena, Potochuena, Gauvequena, Cristobalchuena, Orijuena, Unoena.*

nabar: adj. Orban ilunak edo arreak dituena; kolore argi eta ilunen nahasturaz osatua, kolore askotakoa. **Axnabarre**.

nagusi: adj. Garrantziaren, gorabeheraren arabera lehena dena. II Larria, handia. **Gaztañanagusia**, **Almikanagusi**, **Areztinagusi**, **Basonagusi**, **Fondonagusia**, **Itubizkarnagusibarri**, **Munarrinagusi**, **Portunagusia**, **Tonpoinagusiko bidea**, **Zubinagusiko erreka**, **Zulonagusi**, *Hermecheo-nagusia, Uriarte Nagusia, Maite-ortu nagusia, Mojoi nagusi.*

napar: iz. Ik. Nabar. **Naparra**, **Naparriturri**.

-(e)ne: Deklinabide atzizkia den genitibo markan oinarritutako bukaera, *-e* bokal paragogikoa duena. Baserri berrien izenetan ageri da eta baserrien izen berrietan. Zenbaitetan sailek ere, bukaera hau dute. **Abaroane**, **Albarezene**, **Grandene**, **Arrietane**, **Patxotene**, *Txurrusteneko erreka*, **Artone**, **Artikene**, **Txukene**, *Txomintone*, **Balentiñene**, **Baltzane**, **Beledrone**, *Busterritxune*, **Eguzkitxune**, **Obiakoene**, **Pellune**, **Arkiene**, **Txinbelane**, **Arruane**, **Atsoarene**, **Basabetxune**, **Bidartemotzene**, **Donprimone**, **Enparane**, **Erramontxune**, **Erramuene**, **Errematzane**, **Fandangone**, **Estratzaillune**, **Etxebarrimotzene**, **Fiolene**, **Frantzune, Galartzane**, **Hipolitone**, **Irabiene**, **Jeronimone**, **Joseandiane**, **Josune**, **Juliane**, **Kalene**, **Josene**, **Kanone**, **Karrakane**, **Karrekane**, **Kasakane**, **Kastane**, **Katalane**, **Kolisone**, **Komaistene**, **Kristobalene**,

**Landane**, **Longane**, **Mamatzane**, **Manutxuibarrene**, **Marinone**, **Masuane**, **Matsorriane**, **Motzene**, **Mundakane**, **Muskerritxune**, **Motzenekoa**, **Mungiarrene**, **Orrotzane**, **Ozkirriene**, **Majerine**, **Foteroane**, **Santierrotane**, **Sapotxune**, **Trinkone**, **Txaliñene**, **Txankane**, **Txapoane**, **Txarakane**, **Txikitiñene**, **Txomekane**, **Txominantone**, **Txopitene**, **Txumelatxune**, **Zezilione**, **Urtzekune**, **Utzuene**, **Utzueneko zubia**, **Zabalene**, **Batxiarriene**, *Paulogorriʒene*, **Kontzeneburu**, *Salomene*, *Martinkoixone*, *Obiacone*, *Vaporenecua*, *Achuene*, *Sapitzune*, *Mersedesene*, *Anamarijene*, *Okarane*, *Pedromariʒene*, *Zarosene*, *Inasiobentane*, *Gergoriñe*, *Mosuene*.

oi(h)an: iz. Basoa, zuhaitzez estaliriko zernahi lur eremu edo aurkientza. **Oiangorta**, **Oiangortalde**, **Oiangortako atxa**, **Oiangortako erreka**, **Oiangortako errota**, **Oiangortako zubia**.

okaran: iz. Bot. Errosazeoen familiako fruta-arbola: *Prunus domestica*. II Delakozuhaitzaren frutua, arana. **Okarantza**.

oker: adj. Lerro zuzena bezalakoa ez dena, artez ez dagoena, makurra. **Aretxokerra**.

ola: iz. Burdin mea landuz burdina egiten zen lantegia. II Borda, txabola, etxola. **Mendiola**, **Oiñola**, **Nafarrola**, **Olalde**, **Olatze**, **Oladi**, **Olaerrota**, **Olagorta**, **Olaparte**, **Olazarre**, **Olazarreta**, **Olegi**, **Olagortazpikoa**, **Olaldeko erreka**, *Ola*, *Olavarria*.

(h)ondar: iz. Harea. Mea ale eta bereziki kuartzo ale xeheen multzoa. **Ondarre**, **Ondarreburu**, **Ondarreko masti**.

ondo: iz. Gauza bati buruz, hura ukitzen edo, dagoen aldea. Ik. Albo, Aldamen. **Iturrondo**, **Iturrondoa**, **Almikaondo**, **Enparanondo**, **Aranondo**, **Aranondoburu**, **Aranondoko erreka**, *Viorreta-ondo*, **Utzuenondo**, **Egikondo**, **Garazondo**, **Irabienondo**, **Iturrondoburu**, **Jardinondo**, **Kafrankondo**, **Kamiñondo**, **Karabiondo**, **Kerezondo**, **Kurtzeanondo**, **Landaondo**, **Telleripeondo**, **Mastiondo**, **Mendiondo**, **Morondo**, **Ortuondo**, **Pozondoko soloa**, **Sagarrondo**, **Torreondo**, **Tranpanondo**, **Txaondo**, **Txornaondo**, **Urkamendiondo**, **Elizondo**, *Morgaondo*, *Cantaraondo*, *Iturri-ondocua*, *Pedruondo*, *Mendondogane*, *Queres-ondo-aurreta*, *Artiqueecheondo*, *Arrilabanondo*, *Erlecondo*, *Xarealondo*.

oin: iz. Gizakiaren zangoaren beheko zatia, hura zutik dagoenean lurra ukitzen duena. Hanka. **Sanjuanoñeta**, **Oiñola**, **Oiñolako erreka**, *Portaloña*, *Carceloña*.

oinatz: iz. Oinak lurrean uzten duen aztarna edo seinalea. **Sanjuanoñatze**.

opil: iz. Irinezko orea labean erreaz egiten den ogi moduko biribila eta txikia. **Opilbaso**.

(h)orma: iz. Pareta, lodia bereziki. **Ametzorma**, **Ormabarrieta**, **Ormata**, **Ormaetxe**, **Ormape**, **Ormako solo**, **Ormabarrietako kanposantuzarra**, *Ormaza*.

orrotz: iz. Orratza. Altzairuzko ziri mehe-mehea, mutur batean punta zorrotza eta bestean haria sartzeko begia duena, josteko, birjosteko, ehuntzeko erabiltzen dena. **Orrotzane**.

ortu: iz. Baratza. **Goikortu**, **Maiteortu**, **Ortueta**, **Ortuondo**.

orube: iz. Etxeak eraikitzeko lur eremua. II. Etxe batek hartzen duen lur eremua. **Orbezarreta**, *Orubeechebarri*.

oste: iz. Atzea; gibela. *Elexoste*, **Portaloste**, **Elizoste**, *Santa Clara-oste*, *Elesaostebecuas*.

ota: iz. Bot. Ote. Lekadunen familiako eta *ulex* jeneroko 7 bat zuhaixka arantzatsuren izena. *Ulex sp*. **Ametzoterre**, **Otabaltzaga**, **Otaebagia**, *Otalarra*.

otso: iz. Kaninoen familiako ugaztun haragijalea: *Canis lupus*. **Otsolarre**, **Otsotegi**.

(h)otz: adj. Giza gorputzarena baino tenperatura nabariki apalago duena, behar duen berotasuna ez duena. **Urotze**.

pago: iz. Bot. Fagazeoen familiako zuhaitz batzuen izena. Pago arrunta: *Fagus sylvatica*. **Fagoalde**, **Fagoko erreka**, **Pagatza**, **Pagoandia**, **Pagoeta**, **Pagoetako erreka**, **Pagozuluaga**.

parada: iz. Geldiune. **Paradako landa**.

paradisu: iz. Zintzoen arimak betiereko dohatsutasunaz gozatzen duten lekua. **Paradisu**.

parte: iz. Alderdia, aldea. **Olaparte**.

patin: iz. Ur biltegia. **Patinpe**.

-pe: Eratorpen atzizk. Beheko aldea adierazten duena. **Garimontorpe**, **Gibelpe**, **Gorostiape**, **Iturripe**, **Landapepunta**, *Tirantemastipiek*, *Talaiape*, **Enparanepe**, *Arkupe*, **Arkotzepe**, **Argintxupe**, *Arrisurietape*, **Artepe**, **Barandape**, *Barrandape*, **Bentazarpe**, *Birjinlandape*, **Agirrepe**, **Agirretxupe**, **Akaxpe**, **Altxurpe**, **Astalarrepe**, **Atatallape**, **Ataunpe**, **Biribilpe**, **Biribilpeko erreka**, **Ermupe**, **Errosape**, **Errosapeko moilla**, *Errosapeko erreka*, **Farolpe**, **Fradupe**, **Ganpe**, **Gaztañape**, **Gisastipe**, **Intxaurpe**, **Intxaustipe**, **Intxuspe**, **Itopea**, **Juramentupe**, **Kanpopea Kaltzadape Kaltzadapeko solo**, **Kantarape**, *Cantarape-barri*, **Kateape**, **Landape Landatxupea Madalenape**, **Masapesolo**, **Telleripeondo**, **Mintegipe**, **Munepeko karabia**, **Munepeko erreka**, **Miskatupe**, **Munepe**, **Nafarrolape**, **Ormape**, **Patinpe**, **Sanmigelpe**, **Talape**, **Talaiape**, **Torrepe**, **Tribizarrospe**, **Txaoletape**, **Txaralpe**, **Txindurtzape**, **Txornape**, **Urdaillape**,

**Usape**, **Usope**, **Zumarretape**, **Zumeldipe**, **Txaralpe**, **Gaztelupe**, *Kurtzitapie*, **Ulaupe**, **Zuluetape**, *Errosabidepe*, *Picupe*, *Bieskopie*, *Pastochupe*, *Estraza Yllumpe*, *Mastisarpie*, *Aranzaipe*, *Azgampe*, *Gorozape*, *Mastipiek*, *Tirantemastipie*, *Zarragoitipe*, *Goijenzabalpe*, *Basoillumpe*.

pelota: iz. Jolasean ibiltzeko erabiltzen den bola biribila. *Pelotakalie*.

pika: iz. Zool. Otxodontidoen familiako ugaztun txikia: *Ochotona alpina*: **Pikebaso**.

piko: iz. Mendietako tontor zorrotza. *Picupe*, **Piku**.

piñu: iz. Bot. Pinazeoen familiako hainbat zuhaitzen izena. Zur gogor samarra izaten dute, egur lanerako ona. Itsas pinua, *Pinus pinaster*. **Pinuaga**, **Piñueta**.

piper: iz. Bot. Solanazeoen familiako baratz landarea; *Capsicum annuum*. **Piper**.

pisu: iz. Neurriak eta pisuak kontrolatzen ziren egoitza. **Pisukalea**, *Pisueta*.

planta: iz. Erliebe aldapatsu bat eteten duen zati laua. **Planta**, *Plantachu*, *Erleko planta*.

plantxa: iz. Xafla. **Atatalleko plantxak**, **Plantxak**, **Plantxadea**, **Plantxadak**.

plaza: iz. Hiri edo herrietan, gehienetan eraikuntzez inguraturik, izaten den leku aski zabala. **Goiko plaza**, **San Migel plazatxoa**, **Santa Eufemiako plaza**, *Taraskako plasie*, *Plazagoyen*, *Plaza barrenian*, *Goiko plazie*, *Beko plazie*, *Frailletako plasie*.

portale: iz. Harresitutako herriaren ateak. **Portale**, **Beiportale**, **Beiportale kalea**, **Erremedioportale**, **Errenteriaportale**, **Sanjuanportale**, **Santabarbaraportale**, **Portaloste**, **Sanfrantziskoportale**, **Sanmigelportale**, *Portaloña*.

portu: iz. Itsasontziak babes hartzeko edo karga hartzeko edo uzteko leku egokia, berezkoa nahiz eraikia. **Izaroko portua**, *Portu*, *Portue*, **Portuburu**, *Portuburu gane*, **Portunagusia**, **Portuzarra**, *Portuguichia*, *Portu barriye*.

potingo: iz. Putzua. **Potingo**.

potorro: iz. Zool. Karadriformeen ordenako alzidoen familiako itsas hegazti txikia: *Phalacrocorax sp*. **Potorrarri**, **Potorroarritxiki**, *Potorrari andije*.

pozu: iz. Putzu. Istila, euria egiten duenean eratzen den ur geldizko hedadura txikia. **Pozubaltze**, **Pozondoko soloa**, **Pozueta**, **Pozuillune**, **Pozusiku**.

probostu: iz. Alkatearen aginduak betearazten dituena; aguazila, udaltzaina. **Probostuena**.

punta: iz. Mutur edo buru zorrotza. **Erleko punta**, *Trankil puntie*, **Lamiaranpunta**, **Lazaretoko punta**, **Txankilpunta**, **Talako punta**, **Landapepunta**, *Sastar puntie*.

-ra: Deklinabideko atzizk. Adlatibo marka. **Bolatara bidea**, **Atxetara bidea**, **Errotarako bidea**, **Kikunbera**, *Dibiʒorabidie*.

ronpiolas: iz. olatu-moila. **Ronpiolas**.

sagar: iz. Bot. Sagarrondoa. Errosazeoen familiako eta *Malus* generoko zuhaitz eta zuhaixka hostogalkorren izen arrunta: *Malus sylvestris*. II. Bere fruitua. **Sagarraga**, **Sagastiandia**, **Sagarrazpi**, **Sagardia**, **Sagasti**, **Sagarreta**, **Sagarditxikerra**, **Sagargane**, **Sagarrondo**, *portal de Sagarbarrico*, *Sagarcalle*, *Sagarbarria*.

sakon: adj. Hondoa oso behean edo gainaldetik oso urrun duena; asko barneratzen dena. **Sakona**, **Sakone**, **Sakonatxu**, *Sakoneta*.

sakristau: iz. Elizkizunetan apaizari laguntzea, eliz jantziak zaintzea eta eliza txukun edukitzea egitekotzat dituen pertsona, elizako giltzaina. **Sakristauetxe**.

salbatu: ad. Arrisku larri batetik onik atera edo atarazi; hondamenetik, suntsitzetik begiratu. **Salbatxe**.

saltatu: ad. Salto egin, jauzi egin. **Saltakaballo**.

salto: iz. Jauzia.**Usalto**.

san: Kristau erlijioko santu bat aipatzean aurretik ezartzen zaion hitza. **Sancti Espiritus**, **San Juan Gaztelugatxekoa**, **Sanjuanbaso**, **Sanjuankalea**, **Sanjuanbidea**, **San Frantzisko kalea**, **San Martin kalea**, **San Andres kalea**, **Sanfrantziskoportale**, **Sanjuanportale**, **Sanmigelportale**, **San Martineko erreka**, **San Migeleko eskillarak**, **Santa Klarako eskillarak**, **Santakruziturri**, **San Migel plazatxoa**, **Santa Eufemiako plaza**, **San Migeleko zelaia**, **Sanjuanalde**, **Sanjuanoñatze**, **Sanmigeleta**, **Sanmigelpe**, **Santakruzko landa**, **Sanjuanoñeta**, **San Lazaro**, **San Martin**, **San Roke**, **San Pelaio**, **San Salbador**, **San Sebastian**, **San Antonio**, **San Migel**, *Samigelbidie*, *San Martin-masti*.

santa: Kristau erlijioko santu bat aipatzean aurretik ezartzen zaion hitza. **Santakruzko landa**, **Santa Mariña**, **Santa Mariñako etxea**, **Santakruzerreka**, **Santa Eufemia kalea**, **Santa Barbara kalea**, **Santabarbaraportale**, **Santa Kruz**, *Santa Rosa*.

santu: iz. Erlijio katolikoan, hil ondoan Elizak gurtza ageriko eta unibertsala eskaintzen dion pertsona, kristau gisa eraman duen bizitza txit ereduzkoaren kariaz. **Santunatxe**.

sarri: adj. Osatzen duten banako berdinen artean tarte txikia dagoena, eremu txikian banako asko dituena. **Urkisarri**, **Urkisarribaso**, **Urkisarriko erreka**,

sartzai: iz. Sartze. **Sartzailleku**, Zarcellecua.

sastar: iz. Zaborra, baliatzen ez den zatia, hondakina. *Sastarkalie*, *Sastar puntie*.

senadi: iz. Lurrean sartzen den itsas zatia; badia. **Senadia**.

siku: adj. Lehorra. **Pozusiku**.

sillarri: iz. Eraik. Harlandua. Eraikuntzan hormak eta pilareak egiteko erabiltzen den harri landua. **Sillarri**.

solo: iz. Soro. Zelaia, belardia, belar saila. II Lantzen den lur saila. Alor, arlo. **Solaburu**, **Soloandi**, **Soloandia**, **Solobarrieta**, **Solobiribil**, **Solobiribille**, **Sololuzea**, **Solozabaleta**, **Solozarre**, **Solozarreta**, **Abadesolo**, **Abiosoloa**, **Antonsolo**, **Areztisolo**, **Azkonarsolo**, **Bermeosolo**, **Gerekasolo**, **Amandresolo**, *Amandre-becosolo*, *Armasolo*, **Gernikasolo**, **Txapelsolo**, **Asakasolo**, **Azpisolo**, **Berdesolo**, **Berriz-solo**, **Buztinsolo**, **Atakuko soloa**, **Etxebarrisolo**, **Etxerreko solo**, **Intxaursolo**, **Ingelesolo**, **Iturriko solo**, **Iturrisolo**, **Kakallosolo**, **Kaltzadapeko solo**, **Kaltzadasolo**, **Katalinsolo**, **Karabiko solo**, **Manusolo**, **Marisolo**, **Martinsolo**, **Masapesolo**, **Masolo**, **Mallukisolo**, **Mierasolo**, **Mikasolo**, **Ormako solo**, **Patxosolo**, **Pesolo**, **Pozondoko soloa**, **Txoborsolo**, *Carabi-goico-soloa*, *Aspisolo-miera-solo*, *Katalneko soloak*, *Landa solobarrena*, *Amoroto-solo*, *Arestico-solo*.

talaia: iz. Itsasoko edo lehorreko eremu zabala begiztatzeko erabiltzen den jasoune edo egiten den dorrea. **Tala**, **Talaurre**, **Talabidea**, **Talagutxi**, **Talakalea**, **Talako Andra Maria**, **Talako etxea**, **Talaiea**, **Talape**, **Talaiape**, *Atalaia kalea*, *Talaranzko kalea*, *Talako ermita*, *Talakoetxea kalea*, *Talatxiki*, *Talako punta*.

Taraska: iz. Emakumezko itsusia, zatarra, izaera txarrekoa. **Taraska**, *Taraskako plaza*, *Taraska portaleko*.

-(t)arte: iz. Bi gauzen edo bi punturen arten gertatzen den hutsunea edo hedadura. Ik. bitarte. **Errekarte**, *Artecoigana*, *Arterreka*, *Artetxe*, **Artetxerre**, **Bitarte**, **Bonbillarte**, **Bonbillartealde**, **Bonbillarteazpi**, **Zezilioneko errekartea**, **Uriatebeko**, **Uriartegoiko**, *Artecalle*.

-tegi: Eratorpen atzizk. Izen bizidun nahiz bizigabeei erantsita, lekua adierazten duten izenak sortzen ditu. **Beitegi**, **Akulategi**, **Aportategiko zubia**, **Aroztegi**, *Ajustte canttala*, **Arranotegi**, **Bastegieta**, *Belauztegi*, *Beotegi*, **Boltegieta kalea**, *Bustindegi*, **Erletegi**, **Lupetegi**, **Mañuko mintegia**, **Mintegi**, **Otsotegi**, *Gorostegui*.

teila: iz. Baserriak eta eraikinak estaltzeko erabiltzen diren buztin errezko pieza bakoitza. **Telleria**, **Telleriaga**, **Telleriagaburu**, **Telleriaburu**, *Tellariaga*, *Thellaerrota*.

telleria: iz. Teilak eta kidekoak egiten diren etxea edo lantegia. Buztinola. **Telleriagaburu**, **Telleripeondo**, *Beitegui thelleria*, *tejera de Aborta* (*Telleria*).

-ti(k): Deklinabide atzizk. Ablatibo marka. Mitxelenak dioenez, «Es interesante el problema que plantea el suf. de ablativo, que presenta una variante *–ti* en vizc. y sul., (…) Este *–ti* puede identificarse sin gran temor con el suf. que añadido a nombres de terminaciones espaciales forma derivados con función nominal y adverbial. (…) La oclusiva final no es mas que un elemento sufijado a *–ti*, o lo que queda de él , sin que esta adicción fuera común.» Mitxelena (61. 236). *Arbichu-goiti*, **Beiti**, **Bideazgoiti**, **Barruti**, **Zarragoiti**, **Urezandi**, **Uriatziti**, *Arteri-emeticoa*, *Arteri-andicoa*.

toki: iz. Espazioaren zati jakina, lekua. **Bolatoki**.

tontor: iz. Gailur, goragune. **Tontorre**.

torre: iz. Dorre. Bizkaian gutxienez, beste garai baten asko erabili zen hitz hau nobleen etxebizitzak izendatzeko. II Baso zaintzarako dorrea. **Torre**, **Torreburu**, **Torreko karabia**, **Torrondo**, **Torrepe**, **Torretxu**, **Usatorre**, **Poiuko Ugarte torrea**, *Torreko errekie*, *Torre de Burgoa*, *Sollubeko torrie*.

trankil: adj. Herrikoia, lasaia, barea. *Trankilleko atxa*.

trinko: adj. Hutsarterik gabe baturik edo elkarturik dauden zatiz osatua. II. Lur hezea. **Trinkone**.

troka: iz. Arroila txiki eta sakona, ur korronteen higaduraz sortua. *Gorostadi atzeko trokie*.

truboi: iz. Trumoi. Tximistaren hotsa, hura ikusiz gero entzuten dena: ostots, inusturi, ihortziri. **Truboietagane**, *Truboiek berinkatuteko mendiʒe*, *Truboiek berinkatu sauen bixkerra*, *Truboimendi*, *Truboilekue*.

txakolin:iz. Euskal Herriko itsas aldean bertako mahatsez egiten den ardo mota arina eta apur bat garratza. **Txakoliñeta**.

txankil: iz Arrain mota bat. II iz. Txanka, zangoa. III adj. Ahula, makala. **Txankilleko baixea**, **Txankilpunta**, **Txankille**.

txaola: iz. Txabola. Txiroki eraikitako bizileku txiki eta arrunta. Etxola. **Arrizko txaola**, **Auntzen txabola**, **Beko txabola**, **Txaoleta**, **Txaolalde**, **Txaoletabeko**, **Txaoletaerdiko**, **Txaoletagoiko**, **Txaoletape**, **Txaolako zelaia**, *Chaoletabarrena*.

txapel: iz. Buru estalki biribila eta zapala, askotan beltza. **Txapelsolo**, *Tzapelsarratu*.

txaral: iz. Bot. Txara. Zistazeoen familiako zenbait zuhaixka erretxinatsuren izena, Enbor labur meheak, hosto luzaran estuak, kolorez berde ilunak, eta txori-arrosaren antzeko lore zuriak izaten dituzte. **Txarale**, **Txaraleko erreka**, **Txaralpe**, *Xarealondo*, *Charalebaso*, *Charalealde*. **Txarakane**.

txiker: adj. Txikia. *Tompon-chiquerra*, **Gaztañaditxikerra**, **Irabienetxikerre**, **Itubizkartxikerre**, **Nardiztxikerre**, **Sagarditxikerra**, *Alboniga chicarra*, *Mayte ortu chicarra*.

txiki: adj. Ohiko tamaina, neurria, indarra, garrantzia... iristen ez duena. **Aspotxiki**, *Ytibiscar-chiqui Urchiquiaga*, *Alboniga chiquia*¸ *Tompoi-chiqui*, *Pedrualde chiqui*, **Esparrutxiki**, **Lameratxiki**, **Potorroarritxiki**, **Txikitiñene**, **Talatxiki**, *Mayte Ortuchiqui*.

txindor: iz. Zool. iz. Zool. Txantxangorria: *Erithacus rubecola*. **Txindurtza**, **Txindurtzabarri**, **Txindurtzape**.

txipi: adj. Txiki. **Urtxipiaga**.

txirrita: iz. Hari karretea. **Txirritxea**.

-txo: Eratorpen atzizk. Izen, izenondo eta zenbatzaile zehaztugabeei erantsita txikigarriak eratzen ditu. *Bidetxo,* **San Migel plazatxoa**, Torrecho, *Zuluetacho*.

txokolate: iz. Kakao hautsez, azukrez eta beste zenbait gaiz eginiko ore gotortua. Txokolatero, txokolategilea. **Txokolaterobasoa**.

txopo: iz. Bot. Makala. Salikazeoen familiako zuhaitza: *Populus nigra*. **Txopueta**, *Txopodia*.

txorna: iz. Txosna. Etxola. **Txorna**, **Txornako iturria**, **Txornaondo**, **Txornape**.

txorro: iz. Zurrusta. **Txorroa**.

-txu: Eratorpen atzizk. Izen, izenondo eta zenbatzaile zehaztugabeei erantsita txikigarriak eratzen ditu. **Aritzatxu**, **Aritzatxubidea**, **Aritzatxugane**, **Azatarrotxu**, **Gaztañaditxueta**, **Leixartxueta**, **Mintegitxu**, **Muskerritxune**, **Almikatxu**, **Arbitxu**, **Aretxueta**, **Areztitxu**, **Argintxupe**, **Ariztitxu**, *Arestichuburu*, **Artetxu**, **Bolintxuaga**, *Busterritxune*, **Burutxueta**, **Eguzkitxune**, **Elorritxueta**, *Erreca bitartechua*, **Agirretxu**, **Agirretxupe**, **Axpaltxu**, **Basabetxune**, **Erramontxune**, **Erramontxuneko atxa**, **Errekatxu**, **Errotatxu**, **Etxetxu**, **Etxetxubarri**, **Iturritxu**, **Joakintxu**, **Kantaratxu**, **Karabitxu**, **Kapelatxu**, **Landatxu**, **Lubarritxu**, **Mundakatxu**, **Pastitxu**, **Pastitxuburu**, **Sakonatxu**, **Zestotxu**, **Sapotxune**, **Torretxu**, **Tranpatxu**, **Txapustitxu**, **Zabaletxubaso**, **Zubitxuaga**, **Zubitxueta**, **Zuluetatxu**, **Gantxu**, *Intxortzuta*, **Txumelatxune**, **Amutxu**, **Beko zubitxu**, **Manutxuibarrene**, *Yruchueta*, *Plantachu*, *Zaituchu*, *Sapitzune*, *Atetzu*, *Esparruchu*, *Cristobalchuena*.

-tza: Eratorpen atzizk. Landare izeneni erantsita, landare multzoa adierazten duten izenak sortzen ditu; -di atzizkiaren baliokidea da. **Aritzatxu**, **Aritzatxubidea**, **Aritzatxugane**, **Zitza**, **Areiltza**, **Artza**, *Bedartzako sakona*, *Eitzaga,* **Elortza**, **Apiotza Arbolatzaluze**, **Ardantza**, **Aritza**, **Belauntzaga**, **Ereiñotza**, **Ereñotzaga**, **Iratzagorri**, **Kukutza**, **Mallukitza**, **Okarantza**, **Ollentza**, **Pagatza**, **Txindurtza**, **Txindurtzabarri**, **Txindurtzape**, **Zikintza**, **Urkitzeta**, **Arantzazabal**, **Ollentza**, *Arbizaguchia*, *Axpalza*, *Gallarza*.

ubi: iz. Ibi. **Urubi**.

uda: iz. Lau urtaroetatik beroena, udaberriaren ondotik datorrena. **Udaetxe**.

udal: iz. Estatuaren administrazio maila beherena. **Udaletxea**.

ur, u-: iz. Isurkari koloregabe, usaingabe eta zaporegabea, ibaiak, antzirak eta itsasoak betetzen dituena, hidrogeno eta oxigeno atomoz osatua ($H_2O$). **Irureta**, **Urtxipiaga**, **Urubi**, **Urzuri**, **Usalto**, **Urotze**, **Ureta**, **Urezandi**.

(h)uri: iz. Hiri. Etxe eta eraikuntzen multzo egituratua, aski handia denean bereziki. **Uriatziti**, **Uriartebeko**, **Uriartegoiko**, **Uriartezurbituaga etxea**, *Urizarreta*.

urkamendi: iz. Urkatzeko edo lepoa mozteko lekua.**Urkamendi**, **Urkamendiondo**.

urki: iz. Bot. Betulazeoen familiako zuhaitza: *Betula alba*. **Urkidi**, **Urkisarri**, **Urkisarribaso**, **Urkitzeta**, **Urkidiko erreka**.

(h)urretza: iz. *Corylaceae* familiako zuhaixka (*Corylus avellana*), fruitutzat hurra ematen duena. **Urreztia**.

uso, usa-: iz. Zool. Kolunbidoen familiako hainbat hegaztiren izena. Gizakiak oso antzina bezatu zuen haitz-usoa eta gaur egun etxeko hegazti gisa bizi da, usategietan eta hirietan, batez ere. **Usape**, **Usope**, **Usatorre**.

-z: Deklinabide atzizk. Instrumentala. **Bideazgoiti**, **Burdinazko eskillarak**, **Urezandi**, **Arrizko txaola**.

zabal: adj. Albo batetik bestera hedadura handia edo ohikoa baino handiagoa duena; zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena. **Arantzazabal,** *Arranzabal*, *Artazabala*, *Artazabalaga*, **Astazabale**, **Astazabaleburu**, **Arzabala**, **Bidezabale**, **Arteazabal**, **Gaztañazabalaga**, **Gaztañazabale**, **Goientzabale, Goientzabaleburu**, **Solozabaleta**, **Zabala**, **Zabale**, **Zabalene**, **Zabalbide**, **Zabalerreka**, *Irazabaleta*, **Zabaletxubaso**, *Larrazabal*, *Zabalburu*, *Fracazabal*, *Zabala-basoa*, *Mintegui Zabala*, *Sabaleder*, *Arrizabaleta*, *Goijenzabalpe*.

za(h)ar: adj. eta iz. Pertsona eta izaki bizidunez mintzatuz, adin handia duena. Adintsu. II adj. Gauzez eta mintzatuz, aspaldi sortua, egina, gertatua; luzaz iraun duena edo erabilia izan dena. II Lehenagokoa. **Etxezarre**, **Etxezarreta**, **Farolzarra**, **Labazarra**, **Alfalfazarra**, **Basozarra**, **Bentazarre**, **Bentazarpe**, **Bidezarre**, *Bidezarreta*, **Erromarazarreta**, **Errotazar**, **Errotazarra**, **Galtzarre**, **Gaztañazarre**, **Iturrizarre, Iturrizarregane**, **Kantarazarre**, **Kateazarre**, **Kurtzezarre**, **Larrezarre**, **Mastizarra**, **Mastizarre**, **Olazarre, Olazarreta, Olazarretaburu**, **Orbezarreta**, **Ormabarrietako kanposantuzarra**, **Portuzarra**, **Solozarre**, **Solozarreta**, **Zubizarre**, **Luzarraga**, **Fondazarre**, *Bidesarra*, *Echebarri-erreca-zarra*, *Mallusarra*, *Lusarrasarra*, **Zubizarraga**, *Cantera-zar*, *Mañu-zarra goicua*, *Mayte-ortu-zarra*, *Urizarreta*.

zarratu: iz. Itxia, hertsia. Ik. Barruti, erromara. **Zarratuak**, *Goiko sarratue*, *Tzapelsarratu*, **Santizarratu**, *Katalneko sarratue*.

ze(h)ar: iz. Barrena, adierazten dena alde batetik bestera igaro. Zeharbidea, ohikoa baino motzagoa den bidea. **Zearbide**.

zelai: iz. Landa edo sail laua, bereziki belartsua. **San Migeleko zelaia**, **Txaolako zelaia**, **Zelaia**, **Zelaiaga**, **Zelaiederreta**, **Almikako zelaia**, *Maño selaieta*.

zesto: iz. Otzara, saskia. **Zestotxu**, **Zesteriakalea**.

zezen: iz. Behiaren arra (*Bos taurus*). **Zezenkorta**, **Zezenkortako erreka**.

zi(h)i: iz. Bot. Junkazeoen familiako zurtoin luze malguak dituen belar-landarea (*Juncus sp.*), oso toki heze eta bustietan hazten dena. **Zitza**, **Zietako landa**.

zikin: adj. Ez dagokion zerbait izanik, garbitasuna edo xahutasuna galdu duena. Lohi, busti. **Zikintza**.

zingira: iz. Ur geldizko eremu iraunkorra eta aski handia, sarritan hondo lohitsua eta landare ugari dituena. **Zingira**.

zilo: iz. Zulo. Mitxelenak dioenez, «A.nav. b.-nav. etc. Zilo, zillo 'agujero' (dim. Xilo): a.-nav. etc. Zulho (ya Leiç.), cf. Zuloeta, Navarra, siglo XI.» Mitxelena (61. 78). *Lukisillue*, *Ikesillo*, *Sillonagusi*.

zubi: iz. Ibai baten edo beste baten zernahi eragozpenen gainetik alde batetik bestera igarotzeko egiten den eraikuntza. **Erregiñazubi**, **Aportategiko zubia**, **Aranondoko zubia**, **Arretako zubia**, **Atsoareneko zubia**, **Beko zubitxu**, **Fandangoneko zubia**, **Karabiko landako zubia**, **Landagoikoko zubia**, **Mazaleriagako zubia**, **Oiangortako zubia**, **Olaerrotako zubia, Tribizkoerrotako zubia**, **Utzueneko zubia**, **Zubinagusiko erreka**, **Zubitxuaga**, **Zubitxueta**, **Zubia**, **Zubierrota**, **Zubigane**, **Zubikoa**, **Zubizarre**, **Adoberiako zubia**, *Erriberako subiʒe*, *Zubilanda*, **Errosako zubia**, **Zubizarraga**.

zugatz: iz. Zuhaitz. Enbor zuzen eta zilindro formakoa duten landare iraunkor zurtsuei ematen zaien izena. **Zugatzziminieta**, *Zugatza-mendi*.

zulo: iz. Zerbaiten azalean gertatzen den beherunea edo barneunea. *Atxulo*, **Lukizuloa**, **Ikazulo**, **Pagozuluaga**, **Zulueta**, **Zuluetaburu**, **Zuluetazpi**, **Zuluetape**, **Zuluetatxu**, **Zulonagusi**.

zumar: iz. Bot. Ulmazeoen familiako zenbait zuhaitz handiren izena: *Ulmus sp*. **Zumarrietako landa**, **Zumarrietape**.

zumeldi: iz. Bot. Abaritz, txaparroa. Fagazeoen familiako zuhaitz edo zuhaixka, artearen antzekoa: *Quercus coccifera*. **Zumeldi**, **Zumeldiko erreka**, **Zumeldipe**.

zure: iz. Zuhaitz eta zuhaixken enborra eta adarrak osatzen dituen gai trinko izpitsua. **Zurebagieta**, **Zurtzuri**.

zuri: adj. Elurraren edo esnearen kolorekoa. II Kolorez zuria izan gabe ere, mota bereko gauzen artean kolore argiena duena. iz. Kolore zuria. II Txanpon zaharra, marabedi erdi balio zuena. **Arrizurieta**, *Arrisurietaburu*, *Arrisurietape*, *Arrizuriaga*, *Bedarzurieta*, **Etxezuri**, **Urzuri**, **Zurtzuri**, *Echezuri*.

Zurzuri:iz. Bot. Salikazeoen familiako zuhaitz kaduzifolioa: *Populus alba*. **Zurtzuri**.